

Eritasun kroniko bat diagnostikatzan denean eta/edo berriazko zainketa eskatzen duten egoerak direnean jarraitu beharreko gizarte eta osasun jarduketan protokoloa

Osasun - Hezkuntza - Eskubide Sozialen Departamentuen arteko koordinazioa



Diabetesa, asma, konbultsioak, anafilaxia

Osasunak bost agiri emanen dizkio familiari, 5.a pertsonalizatuz

- 1.-Ikastetxeko zuzendariarendako informazioa.
- 2.- Atzemandako eritasun edo egoeraren informazio orokorra.
- 3.- Medikazioa erabiltzeko jarraibideak
- 4.-Medikazioa administratzeko baimena.
- 5.- Arreta integraleko plan pertsonalizatua.

Familiak bost agiriak emanen dizkio ikastetxeko ikasketa buruari. Arreta pertsonalizatuko plana berrikusiko da, bi arduradun izendatuko dira eta 4 eta 5 agiriak sinatuko dira.

Ikastetxea:

- Ikaslearen kargu dauden langileei informazioa emanen die.
- Baloratuko du prestakuntza laguntza behar duten (ikasleen kargura dauden langile guztiek jasoko dute prestakuntza, behar bezala jarduteko gaituak egon daitezzen). Beharrezko irizten badio, osasun zentroan eskatuko du.

Osasun Departamentuak prestakuntza antolatuko du eta jarraipen ildoak ezarriko.

Diabetesa duten ikasleak ikastetxean artatzeko protokoloa

**Haurren Diabetesaren Unitatea
Nafarroako Ospitaleguna-B**

2018ko urria



Zuzendaritza talde eta tutore estimatuak:

Nafarroako Ospitaleguneko Haurren Diabetesaren Unitatea zuen ikastetxearekin harremanetan paratzen da, jakinarazteko ikasleak 1 motako diabetesa diagnostikatua duela.

Diabetesa eritasun kronikoa eta eragin handikoa da adin pediatrikoan. Egunean 24 orduko kontrola eskatzen du. ikaslea ospitalizatuta egon den bitartean, familiak eta haurrak berak aski informazio jaso dute eritasuna gobernatzeko. Tratamenduaren helburua da kontrol metaboliko egokia izatea, gorabeherak prebenitzeko eta adingabeko hauen bitzta erabat normalizatzeko; horregatik, ospitalizazio aldia bukatu ondoren, funtsezkoa da ahal bezain laster itzultzea eskolara.

Etxean, familiak dira semearen edo alabaren diabetesa kontrolatzearen arduradunak, baina eskolaren esparruan familia desagertu egiten da eta IRAKASLEEK hartzen dute ardura, haiek baitira ikaslearen lehenbiziko sostengua.

Osasuneko lantaldea garen aldetik, ulertzen dugu ikastetxe barneko eritasun kroniko baten diagnostikoaren aurreko "beldurra". Horregatik, zuen esanetara egonen gara behar duzuen guztietan eta zalantzaren bat kontsultatu nahi duzuenarako. Uste dugu garrantzitsua dela ikaslearen irakasle taldea eta osasuneko lantaldea harremanetan izatea, horrek diabetesa diagnostikaturik duten pertsonen eskola bizitzaren normalizazioa eta arretaren kalitatea hobetzea ekar ditzakeelako. Horregatik, proposatzen dizuegu gurekin harremanetan paratzeko, premiazko irizten diozuen laguntza eta prestakuntza jaso ahal izan dezazuen.

Haurren Diabetesaren Unitateak, Hezkuntza Departamentuarekin batera, urtean bi prestakuntza jardunaldi antolatzen ditu (irailean eta martxoan izan ohi dira) ILZk antolatzen dituen ikastaroen baitan.

Ikaslea ikastetxean hasi eta gutxi gorabehera 15 egunen buruan, ikastetxeari dagokion eskualdeko oinarrizko osasun laguntzako talde sanitarioak bilera bat eginen du irakasleekin eta familiarekin, beharrak hautemateko eta protokolo hau ongi garatzen laguntzeko.

Ospitaleguneko eta Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeko profesional sanitarioen laguntza izateaz gain, Nafarroako Diabetes Elkarteak (ANADI), osasunaren arloko profesionalekin elkarlanean, irakaskuntza-komunitateari laguntzen eta harentzako aholkularitza-lana sendotzen segituko du

Adeitasunez,

Iruñean, 20__ (e)ko _____aren _____ (e)an

Mediku taldea: María Chueca Guindulain, Sara Berrade Zubiri

Erizain hezitzaileen taldea: Haurren Diabeteserako Unitatea, Nafarroako Ospitaleguna-B

Isabel Vázquez Telefonoak: 848 42 50 40/848 42 95 47. Helb. elek.: HVCDIAPOL@navarra.es

Eskualdeko erreferentziazko osasun etxearen telefonoa (bete behar da):

Nafarroako Diabetes Elkarteak, ANADI. Telefono zenbakia: 948207704 Email: info@anadi.es

DIABETESA DUTEN IKASLEAK ARTATZEKO GIDA

1. MOTA IKASTETXEAN

Diabetesa duten ikasleen eskola bizitza, funtsean, ez da ikaskideen bizitzatik bestelakoa eta ez luke arazo bat izan beharko eskolarendako. Hala ere, premia bereziak dituzten pertsonak dira: gluzemia zehaztea, intsulina injektatzea, hipogluzemiak zuzentzea, karbohidrato errazioak kontatzea... Ondorioz, komenigarria da irakasleak jakinaren gain egotea eta eskolaldian zehar aurki ditzaketen egoerak aintzat hartzea. Funtsezkoa da familien eta irakasleen arteko informazio trukea, ikasleei laguntzeko behar bezala garatzen. Gainera, ikastetxean integratzea eta jardueretan parte hartzea garrantzitsuak dira, ikasle hauek autonomia eskura dezaten.

Zer da 1 motako diabetesa?

1 motako diabetesa eritasun kroniko bat da. Eritasun honetan, pankreako beta zelulek (intsulina ekoizten dutenek) funtzionatzeari uzten diote, hots, intsulina gutxi edo batere ez dute ekoizten.

Intsulina gure gorputzak glukosa (azukrea) erabili ahal dezan behar den hormona da. Elikagaietatik dator. Intsulinarik gabe ez da bizitzen ahal eta, beraz, 1 motako diabetesa duten pertsonak intsulina injektatu behar izaten dute larruazalpetik.

Diabetesa ez da kutsakorra eta gaur egun sendaezina bada ere, kontrola daiteke intsulina injektatuz, odoleko glukosa maila kontrolatuz, elikadura egoki batekin edo ariketa fisikoa praktikatuz.

Nola artatzen da 1 motako diabetesa?

- **Intsulina**

Diagnostikaturiko pertsona gehienek intsulina egunean hainbat aldiz hartu behar dute, gehienetan otordu bakoitza (gosaria, hamaiketakoa, bazkaria, askaria eta afaria) baino lehenago. Injekzio horiek ez dira berak adinaren eta diagnostikotik iragan den denboraren arabera. Horrela, batzuk soilik ziztatu beharko dute hamaiketakoan eta bazkarian, eta beste batzuk, aldiz, soilik bazkalorduan.

Ikaslerik gazteenek ikastetxe-jantokiko langileen laguntza beharko dute intsulina hartzeko. 8-9 urtetik aitzina, beren kabuz injektatzen ahalko dute, baina betiere heldu baten begiradapean.

Komenigarria da zehaztea nor izanen den injekzioa zaintzearen arduradun. Hobe bi pertsona badira.

Intsulina dosia familiak adieraziko du beti, idatzizko jarraibidearen bidez, diabetesaren lantaldearekin adostuta.

Intsulina emateko, familiek BAIMEN IDATZIA ekarriko dute. Bertan ardura hartzen duten irakasleak erantzukizun orotik salbuetsiko dituzte.



- **Glukosaren monitorizazioa**

Ikasleak glukosa mailak kontrolatu behar ditu egunean hainbat aldiz, neurgailu propio bat erabilia. Teknika oso erraza da, baina adinaren arabera eskatzen du glukosa neurketa adinez nagusi den norbaitek egitea edo haren zaintzapean egitea.

Eskolako ordutegian glukosa kontrolak hamaiketakoaren eta bazkariaren aurretik egin behar dira (eskolako jantokian gelditzen badira) eta baita hipogluzemia susmoa badago ere.

- **Elikadura**

Diabetesa duten ikasleen elikadura orekatua izan behar da, adin horretako beste edozein pertsonaren antzekoa.

Karbohidratoak oso garrantzitsuak dira eta ikasle hauek aski karbohidrato jan behar dute, odoleko glukosa maila balio egokietan izateko.

Ikastetxeko jantokian jaten badu, komenigarria da familiei bazkaritako hileko menua ematea, zehaztu ahal izan dezaten beren seme-alabek janen duten elikagai kopurua. Ahal bada, jantokiaz arduratzen den enpresarekin bilkura bat adostuko da.

- **Ariketa fisikoa**

Diabetesa duten ikasleek ikaskideen ariketa bera egin dezakete eta egin beharko lukete. Familiak, haurrarekin eta pertsona arduradunekin batera (tutoreak eta Gorputz Hezkuntzako irakasleak), zehaztuko ditu jarraitu beharreko ildoak, beharrezkoa izanen baita kirola egin aurretik glukosa kontrol bat egitea eta karbohidratoak hartzea, gluzemiaren arabera.

Ospakizunak eta txangoak

Urtebetetzeak edo festak dituzten eskola ospakizunak daudenean familiei jakinaraziko zaie, tratamendua egoki dezaten eta azukre gutxiko elikagaiak eraman ditzaten.

Ikastetxeko irteera eta txangoetan nahitaezkoa da familiei aski denborarekin jakinaraztea zein den plana (ibilbideak, ordutegiak, otorduak, etab), intsulina eta elikadura egokitu ahal izateko egitera doazen jarduerara. Ikasleak autokontrolerako material guztia eraman beharko du uneoro gainean (glukosa neurgailua, intsulinak...), bai eta ere azukrea eta hipogluzemia kasuetan erabiltzeko "elikagai ekstrak".



Konplikazioak:

Eskola ordutegian zor daitezkeen ohikoenak ondokoak dira:

1. Hipogluzemia

Glukosa maila 70 mg/dl.-tik behera jaistea.

Zergatiak:

- Intsulina gehiegi
- Karbohidrato gutxi janarian edo atzerapena jateko orduan
- Programatu gabeko ariketa gehiegi

Sintomak:

- Portaera erratikoa, suminkortasuna
- Zurbiltasuna, izerdi hotza
- Dardara
- Gose handia
- Logura
- Kontzientziaren galera (ez da horren ohikoa)

Tratamendua

Pertsona kontziente badago

Gluzemia 60-70 mg/dl tartean:

Ondokoa hartu behar du: Azukre koxkor erdia eta, orduaren arabera, hamaiketako edo bazkaria, edo 2 gaileta, edo baso bat esne, edo fruta ale bat.

Itxaron hamar minutu eta berriz ere gluzemia egin, **60-70 mg/dl** bitartean jarraitzen badu, berriz ere hartu azukre koxkor erdia. Berriz ere egin gluzemia, **>70 mg/dl** izan arte

Gluzemia <60 mg/dl:

Azukre koxkor bat hartu behar du, **10 minutu itxaron eta berriz ere gluzemia egin:**

- **<60 mg/dl:** errepikatu azukre koxkor bat eta, orduaren arabera, hamaiketako edo bazkaria, edo 2 gaileta, edo baso bat esne, edo fruta ale bat. Errepikatu kontrola 10 minuturen ondoren.
- **60-70 mg/dl,** errepikatu azukre koxkor bat eta, orduaren arabera, hamaiketako edo bazkaria, edo 2 gaileta, edo baso bat esne, edo fruta ale bat.

Berriz ere egin gluzemia, **>70 mg/dl** izan arte

Kontziente ez badago **Ez du ahotik deus hartzen ahal**

Eman glucagón: Muskulu barnean injektatuz, besoan edo izterrean

7 urtetik beherakoak: bial erdia

7 urtetik gorakoak: bial bat

Garrantzitsua da, gutxienez ere 2 pertsonak prestakuntza izatea glucagón injekzioa jarri ahal izateko.

Glucagón emateko, familiek BAIMEN IDATZIA ekarriko dute. Bertan ardura hartzen duten irakasleak erantzukizun orotik salbuetsiko dituzte.

Aholkuak

- Izan azukrea beti eskura.
- Hipogluzemia susmoa bada, neurtu glukosa eta eman azukrea, behar bada. Ezin bada neurketa egin, zalantzaren aurrean, eman azukrea.
- Garrantzitsua da azukrea edo zukua elikagaiekin nahasi gabe ematea (nahasteak atzeratu egiten du irenspena eta pertsona bere onera etortzea).
- Behin bizkortu dela, elikagaiak eman behar zaizkio, kasu, esnea, gailetak, jogurtak, fruta, etab. (karbohidrato atzeratuak), glukosa maila ondoko bazkarira arte mantentzeko.
- Izan pertsona atsedenean, guztiz bere onera etorri arte.
- Hipogluzemia egoeran, ikasleak beti izan behar du heldu bat laguntzaile.
- Tratamenduari erantzuten ez badio, jar zaitez harremanetan 112rekin.

2. Hipergluzemia

Glukosa maila 250 mg/dl.tik gora igotzea.

Zergatiak:

- Beharrezkoa baino intsulina gutxiago
- Karbohidrato gehiegi jatea
- Gaixotasun infekziosoak
- Estresa

Sintomak:

- Nekea
- Zefalea
- Egarr handia
- Pixa egiteko premia

Aholkuak

Hipergluzemiak ez du eskolan larrialdiko tratamendu bat behar. Maila handikoa bada, familiek jarraibideak berrikusi beharko dituzte etxean, diabetesaren lantaldearekin batera. Ikasleei aukera eman behar zaie klasetik ateratzeko komunera, pixa egitera.

Botaka egiten badute edo sabeleko min handia badute, familiei abisatu behar zaie, egoera horretan dagoen beste edozein haurren kasuan eginen litzatekeen gisa berean.

Aldaketa psikosozialak

Diabetesa duten haurrak egin behar izaten dituzte odoleko glukosa kontrolak behin eta berriz, hartu behar dituzte egunero intsulina injekzioak, zenbaitetan ez oso malguak diren ordutegiak izaten dituzte eta ariketa kontrolatua egin behar izaten dute, odolean glukosa maila mantentzeko. Hori guztia, ahaztu gabe noizean behin hipogluzemia izateko arriskua dutela.

Horrek ikaslearen egoera animikoan eragina izan dezake. Inguruko pertsonen (familia, ikastetxea, adiskideak...) aldetik laguntza falta sentitzeak eragin dezake eritasunera gaizki egokitzea edo gatazkak azaltzea (suminkortasuna, eskola errendimendu txikiagoa, pasibotasuna, uzkurtasuna...)

Guztion lana da pertsonaren egokitzapen ona lortzeko laguntzea, esparru guztietan.



Berebiziko garrantzia du kontuan izatea

- Haurrak normaltasunez tratatu behar direla
- Hipogluzemia konpontzen jakin behar dela
- Ez badago glucagón-ik larrialdi zerbitzuari jakinarazi behar zaio, eman diezaioten eta, hala behar bada, ospitalera dezaten. Familiei ahalik eta lasterren jakinarazi behar zaie.
- Familien telefono zenbakia eta erreferentziako ospitalekoa eskura izan beharko dira. Horretarako informazio hau idatziz igorriko zaie.
- Ikasleei aukera emanen zaie ikasgelatik ateratzeko edatera eta pixa egitera, hala eskatzen dutenean.
- Diabetesa duten pertsonak ez dira beren ikaskideengandik desberdinak. Uste baduzu diabetesak eskola girora egokitzeko arazo bat sortzen ari dela, komenigarria da familiekin hitz egitea. Oso garrantzitsua da familien, ikasleen eta irakasleen arteko elkarrizketa eta informazio trukea.





HIPOGLUZEMIA GOBERNATZEKO GIDA AZKARRA

Ikaslearen izena:

Amaren/aitaren/tutorearen ONESPEN SINATUA



IKASMAILA: _____

Familiarekiko harremanetarako telefonoa: _____

Haurra kontziente dago:

Gluzemia 60-70 mg/dl tartean

Ondokoa hartu behar du: Azukre koxkor erdia eta, orduaren arabera, hamaiketakoa edo bazkaria, edo 2 gaileta, edo baso bat esne, edo fruta ale bat.

10 minutu itxaron eta berriz ere gluzemia egin

Gluzemiak 60-70 bitartean badirau, eman berriz azukre koxkor erdia eta egin gluzemia 10 minutuan behin, 70etik gorako maila erdietsi arte

Gluzemia <60 mg/dl:

Azukre koxkor bat hartu behar du, 10 minutu itxaron eta berriz ere gluzemia egin

Gluzemia <60 mg/dl mailarekin jarraitzen badu, errepikatu azukre koxkor bat eta, orduaren arabera, hamaiketakoa edo bazkaria, edo 2 gaileta, edo baso bat esne, edo fruta ale bat.


Gluzemia **60-70 mg/dl artekoa bada**, azukre koxkor erdi eta, orduaren arabera, hamaiketakoa edo bazkaria, edo 2 gaileta, edo baso bat esne, edo fruta ale bat.

Haurra EZ dago kontziente:

Eman glucagón: Muskulu barnean injektatuz, besoan edo izterrean

112ra eta familiari deitzea

Dosiak 7 urtetik beherakoak: bial erdia
7 urtetik gorakoak: bial bat



Haurren Diabetesaren Unitatea
Nafarroako Ospitalegunea-B
Telefonoak: 848 42 50 40 eta 848 42 95 47



IKASTETXEKO LANGILEEK GLUCAGÓN EMATEKO BAIMENA

Haurraren izen-deiturak:

Amaren, aitaren edo legezko tutorearen sinadura:

Nik,(ama, aita edo legezko tutorea),
..... NAN zenbakidunak, baimena ematen diet
..... ikastetxeko langileei (irakasleak edo
zaintzaileak), larritasun egoeran hurrari glucagón injekzio bat eman diezaioten.

Nola eta noiz eman behar den azaldu zaie aldez aurretik eta idatziz eman zaie HIPOGLUZEMIA LARRIA gertatzen bada gauzatu beharreko jarduketa plana.

Ikasgelako arduraduna edo semearen/alabaren irakaslea ez badago, medikazio hori ematen ahalko dio ikastetxeko beste profesional batek, behar bezala prestatua dagoenak. Medikamentua ematearen ondorioz gorabeheraren bat azalduko balitz, oso kasu gertagaitza, erantzukizun orotik salbuesten dut glucagón eman dion pertsona.

Medikamentua eman ondotik, 112 telefonora eta familiarekiko harremanetarako telefonora deitu beharko duzu

Iruñean, 20.....(e)koaren(e)an

Aitaren, amaren edo legezko tutorearen sinadura

Ikastetxeko ordezkariaren sinadura





IKASTETXEKO LANGILEEK INTSULINA EMATEKO BAIMENA

Haurren izen-deiturak:

Amaren, aitaren edo legezko tutorearen sinadura:

Nik,(ama, aita edo legezko tutorea),
..... NAN zenbakidunak, baimena ematen diet
..... ikastetxeko langileei (irakasleak edo
zaintzaileak), nire semeari/alabari lagun diezaioten intsulina hartzen, familiak emanen diezkie
gomendioei jarraikiz. Medikamentua ematearen ondorioz gorabeheraren bat azalduko balitz, oso
kasu gertagaitza, erantzukizun orotik salbuesten dut pertsona hori.

Iruñean, 20.....(e)koaren(e)an

Aitaren, amaren edo legezko tutorearen sinadura

Ikastetxeko ordezkariaren sinadura



DIABETESA DUTEN HAUREN TRATAERA PERTSONALIZATUA IKASTETXEAN. IRADOKIZUN BAT

1. Lehenbiziko neurria da diabetesa duen ikaslearen ikasgela barruan sinbolo bat paratzea, bertara lehen aldiz azaltzen den edozein irakaslek (titularra ordezkatu delako, errotazioa dagoelako, etab.) jakin dezan informazioa jaso behar duela kasu jakin horren gainean, haurrak deskonpentsazio motaren bat jasan dezakeela eta osasun laguntza eska dezakeela (kasurako, paratu gurutze berde bat ikasgelako iragarkien oholean).



2. Irakaslearen mahaiko kaxoian liburuxka bat gordeko da haurren izenarekin eta argazkiarekin, duen eritasunarekin eta behar dezakeen zainketarekin.
3. Diabetesaren kasuan, hauxe da liburuxka:

DIABETESA DUTEN HAURREKIN JARDUTOKO PLAN PERTSONALIZATUA

Harremanetarako telefonoa:

1.a: _____ Ondokoarena da _____
 2.a: _____ Ondokoarena da _____
 3.a: _____ Ondokoarena da _____

Anbulantzia: 112

Bere adinako gainerako ikasleek egiten dutena egiten ahal du eta egin behar du

Horretarako, kontuan izan behar da

- Ariketa fisikoa
- Elikadura
- Intsulina

Beste faktore zenbaitek ere eragina izaten ahal dute (beroa, urduritasuna, etab.)

HELBURUA Egon adi hipogluzemiaren (azukre jaitsieraren) zantzuei.

Ikasle bakoitzaren kasuan zantzu bereziak izaten dira adierazten digutenak azukre jaitsiera badatorrela. Litekeena da helduari horrela adieraztea. Horietako batzuk ondokoak izaten ahal dira:

- Nekea, azal ezin datekeena egindako anketarengatik
- Gosea
- Gehiegizko izerdia eta/edo azala hotz
- Zurbiltasuna
- Buru moteltasuna
- Takikardia, dardara tsikiak
- Ustekabeko umore baxra, kasketa, haserrealdia (azaldu ezin daitezkeenak)
- Etab.

ZER EGIN? Egiaztatu azukre maila. Ez badakizu egiten, jakinarazi arduradunei. Jarrai lezaiozu atzeko aldeko eskemari. Badaezpada, ez utzi haurra bakarrik.

ZER EGIN, EZ BADUZU GAILUA GERTU? Zalantzen aurrean, sintomak tratatu hipogluzemia bat baillitzan, hots, eman azukre kokorrak edo zukua (irakaslearen mahaian egonen dira).

ESAN DIDATE KONORTEA GAL DEZAKEELA Ez da batere arrunta, baina gertatzen bada:

1. Ez izeaiozu ahotik deus ere eman
2. Eman abisua pertsona hauetako bati:
 - _____
 - _____
3. Beharrezkoa bada, glucagóna hemen dago: _____
4. Eman abisua atezaintzan, gurasoei eta 112ra deitzeko

GLUZEMIA (Azukre maila begiratu)

- < 60 → Bi azukre zorro
- 60 - 70 → Azukre zorro bat
- > 70 → Itxaron hamaiketakora arte

Itxaron 10 minutu eta berriz ere egiaztatu azukrea

- < 70 → Azukre zorro bat
- > 70 → Baso bat esne edo fruta 1 edo 2 gaileta edo hamaiketakoa

4. Ikastetxe bakoitzean gomendatzen da 2 eta 4 pertsona artean egon daitezela “deskonpentsazio mediko” baten aurreko jarduketa protokoloa ezagutzen dutenak; oro har, ikaslearekin harreman handiena duten pertsonak izanen dira (irakasleak, tutoreak...). Horiekiko harremanetarako telefonoak atxikiriko liburuxkan daude.



5.2 AGIRIA: JARDUKETA PLAN PERTSONALIZATUA

DIABETESA DUTEN HAURREKIN JARDUTEKO PLAN PERTSONALIZATUA

Harremanetarako telefonoa:

1.a: _____ Ondokoarena da _____

2.a: _____ Ondokoarena da _____

3.a: _____ Ondokoarena da _____

Anbulantzia: 112

Bere adineko gainerako ikasleek egiten dutena egiten ahal du eta egin behar du

Horretarako, kontuan izan behar da

- Ariketa fisikoa
- Elikadura
- Intsulina

Beste faktore zenbaitek ere eragina izaten ahal dute (beroa, urduritasuna, etab.)

HELBURUA

Egon adi hipogluzemiaren (azukre jaitsieraren) zantzuei.

NOLA JAKIN HAURRAK HIPOGLUZEMIA DUELA?

Ikasle bakoitzaren kasuan zantzu bereziak izaten dira adierazten digutenak azukre jaitsiera badatorrela. Litekeena da helduari horrela adieraztea. Horietako batzuk ondokoak izaten ahal dira:

• Nekea, azal ezin daitekeena egindako ariketarengatik	• Buru moteltasuna
• Gosea	• Takikardia, dardara txikiak.
• Gehiegizko izerdia eta/edo azala hotz	• Ustekabeko umore txarra, kasketa, haserrealdia (azaldu ezin daitezkeenak).
• Zurbiltasuna	• Etab.

ZER EGIN?

Egiazta ezazu azukre maila. Ez badakizu egiten, jakinarazi arduradunei.

Jarrai iezaiozu atzeko aldeko eskemari

➔

Badaezpada, **ez utzi haurra bakarrik.**

ZER EGIN, EZ BADUZU GAILUA GERTU?

Zalantza aurrean, sintomak tratatu hipogluzemia bat bailitzan, hots, eman azukre koxkorrak edo zukua (irakaslearen mahaian egonen dira).

ESAN DIDATE KONORTEA GAL DEZAKEELA

Ez da batere arrunta, baina gertatzen bada:

1. **Ez iezaiozu ahotik deus ere eman**
2. **Eman abisua pertsona hauetako bati:**

<input type="radio"/> _____	<input type="radio"/> _____
<input type="radio"/> _____	<input type="radio"/> _____

3. Beharrezkoa bada, glucagóna hemen dago: _____
4. **Eman abisua atezaintzan, gurasoei eta 112ra deitzeko**

